

«CENTESIMUS ANNUS»

«Rerum Novarum» entziklika sonatuaren mendeurrena ospatzen ari gara aurten. Ori dala-ta, Juan Pablo II Aita Santuak, maiatzaren batean, beste idazki eder bat eskeini dauku. Bere izenburua «Centesimus Annus». Entziklika barri onen ardatza arazo-sozialak osotzen dabe. Erromako Aita Santuak biotz barnean daroaz gaurko gizonen kezka eta problema larriak. Gai sozialei buruz baditu beste entziklika eder bi be. Orra or, «Laborem Exercens» eta «Sollicitudo rei Socialis» entziklika famatuak.

«Centesimus Annus» entziklikan, Juan Pablo II «Rerum Novarum» paregabeko idazkiari begira jartzen jaku. Lenengo orrietan gainbegirada baten, «Rerum Novarum» irakaspenak eta balioak azpimarratzen ditu. Ta berealaxe gainean doguzan problemei begira jartzen da etorkizunerako bide barriak zabaldu nairik.

Egoera barri baten aurrean gagozanik ezin ukatu. Azken urteotan komunismoaren deskalabrua begibistan daukagu. Barru-barrutik ustelduta egoan sistema ori, bai ekonomi mailan, bai arazo-sozialetan, bai politikan ta, zer esanik ez, etika mailan, mundu guztiaren aurrean izugarritzko porrot eginda ikusten da.

Beste aldetik kapitalismoaren akatsak be begibistan ditu entziklika onek. Sarritan kontsumokeri itsura eta materialismo ilunera garoaz. Liberalismo ekonomikoaren arrisku gorria gizadia merkatari mundu batera biurtzea da. Arima eta espiritu gabeko mundu estu eta itsia. Komunismoaren frakasuak ez dau, beste barik, kapitalismo gogorra eta basatia bedeinkatzen. Olako kapitalismo liberala ez da marxismoaren urtenbidea.

Ez bakarrik Irugarren Munduko arazo penagarriak, baita Laugarren Munduko izugarritzko problemak be kontuan ditu Aita Santuak. Ta Laugarren Mundua geure artean daukagu. Entziklikaren berbarik sentikorrenak eta deirik mingarrienak euron alde eginda dagoz. Munduko erri pobrienak, munduko gizon-emakume pobrienak «Centesimus Annus» entziklikaren kutunenak doguz.

Gizonaren duintasuna

Egoera barri onen aurrean makina bat irakaspen sakon eta bide barri emoten dauskuz Aita Santuak. Baina entziklika guztian zear, buru batetik bestera, gizonaren duintasuna eta bardinbako balioa ikusten da. Munduan ez da beste ezer gizonaren ainakorik. Persona denez, ez da tresna bat, norbait baino. Bera bait da Jaungoikuaren «irudi bakanena eta arrigarriena». Munduaren erdian gizonaren pareko duintasunik daukonik ez da beste ezer ageri. Juungoikuak bere irudiko egin dau gizona eta bere eskuetan ipini izan dau izadi ederra. Ta gizonak Jaungoikuaren misterioa maitasunez onartuz, lortzen dau bere gaillurra. Ortik sortzen da, gizon bakoxtari zor jakon errespetua eta lotsa.

Aita Santua ez dabil lañutan. Ezeri oratzen badautso gogoz, gizon eta emakume historikoak dira. Bai marxismoari eta bai kapitalismo «basatiari» aurka egiten badautso, gizonaren duintasuna eta balioa kontuan artzen dabelako da. «Komunismoaren errakuntzarik nabariena, antropolojiko da» esaten dau

entziklika onetan. «Gizon bakotxa pertsona da bere nortasun eta bere arduraz». Ta ez olako molekula moltso bat besterik. Gizona ez da ekonomiaren eraginez, ara eta ona, dabillan gorpuskulo itsu bat besterik. Eleizak xalotasunez eta energiaguz beti defenditu dau gizonaren duintasuna. Ta origaitik beste gauza guztien gainetik zor jako errespetua. «Askatasunaren eta giza-eskubideen izenean jokatu izan dau Eleizakak marxismoaren aurka». «Batez be langileen eskubideen alde». Poloniako Solidaritate sindikatua lekuko.

Marxismoak ez dau onartzen errien kulturea, izkuntza ta historia. Gizonen biotzetik espirituzko balioak kenduz, bere nortasuna be galdu egiten dau erriak. Ta moral balioak iruntsi. Ta onela gizonari, batez be gizon langileari, lapurketa naskagarrienak egin jakoz. Ta lapurketa penagarriena langileria Jaungoikuagandik urruntzea. Aita Santuaren ustetan, gaur zorionez, fedearen eta langile-mogimenduen arteko tira-bira gainditzen doaz. Langileentzat, zoritxar aundia izan da, euren mogimentua, marxismoaren erpetan jaustia. Ta ortik zorion gitxi etori jakoz, bai ostera negarra eta miseria.

Kapitalismo gogorraren kontsumokeria eta materialismo itsuak be, ez dau gizonaren duintasuna kontuan artzen. «Gizona askatasun osorako sortua danez, ezin lei kontsumokeriaren menpean jausi. Askatasun ekonomikoa ez dau berez askatasun osora eroaten. Marxismoiak makina bat alienazio sortu izan ditu, baita kapitalismo basatiak be. Biok oiñarri bardiñak ditue, gizonaren morrointza eta mesprezua. Guztiok lanaren eta kulturaren eta espirituaren bidez pertsona libreak izatera deitua gara ta ez ezeren morroi». Ze ederto bereizten dabezan Aita Santuak eduki eta izan arteko diferentziak. Ez pentsa, zenbat eta geiago euki, pertsona osoagoak izango garanik. Begiak zabaltzea baino ez daukagu.

Eleiza munduko arazoetan parte artzen badau, gizonaren duintasuna jokoan dagolako da. Orixe da bere bokazioa:

gizonaren paregabeko eskubideak zaindu eta bultzatu. Batez be pobrienen eta beartsuenen eskubideak. Eurok dira Eleizaren kutunenak.

«Centesimus Annus» entziklikaren ardatza eta erroa onetan dago: pertsona bakotxaren paregabeko duintasuna eta balioa. Munduko arazoei begira jartzen bajaku, pertsonen eta errien nortasuna zaintzearren izan da bere elburu nagusia.

A. Olea



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



ARZEL S.L. VIDEO PROFESIONAL

San Miguel kalean, 14 Urrut.: 673 0509 48340 Amorebieta	Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut.: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)
--	---

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868